2002ko urtarrila 1. zenbakia

Aikor!

txorierriko aldizkaria

Txorierriko txakolina ostera be saritua

Aurrematrikulazioa - S.D. Zamudio - Sondikako Inauterial

TXORIERRIKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

KALITATE ONEKO IRAKASKUNTZA ETXETIK HUR

Larrabetzuko Herri Ikastetxea
Tel.: 944 558 172
Faxa: 944 558 172

Zamudioko Herri Ikastetxea
Tel.: 944 520 826
Faxa: 944 521 349

"Txorierri" B.H.I. (Derio)
Tel.: 944 543 258
Faxa: 944 543 262

"Gorondagane"
Herri Ikastetxea (Sondika)
Tel.: 944 531 020
Faxa: 944 531 020

Derioko Herri Ikastetxea
Tel.: 944 541 246
Faxa: 944 541 246

Lezamako Herri Ikastetxea
Tel.: 944 55 119
Faxa:944 555 163

MATRIKULA OTSAILEAN IZANGO DA

EUSKALDUNOK ANFIBIOAK GARA

AIKOR hasi da euskal urtegira ura emoten. Itzelezko gertaera da hori gure Txorierriko aintziran. Noz poztuko ete gara daukagunaz?.

Erdal elebakarrak lehorrean bizi dira. Euskal ugaraxook, ostera, uretan zein lehorrean, nekez topatuko dogu euskaldun elebakarrik eta. Txorierriko anfibioen artean, dana dala, badira benetako elebidunak ingelesa jakinda eleanitzak, euskara zein erdara gai errezetarako nahiz zientzietarako erabiltzen dabenak; badira pseudoelebidunak bere, euskaraz bizi eta erdara inozkoan baino ez darabilienak; baina baita erdaraz bizirik euskara amama zaharrari, bost urteko umeari eta txakur alfabetatu bakoari egiten deutsienak bere.

Zein taldetako ete dira gaur egunean, 1983tik gora D ereduetan ikasi eben neska-mutilak? Behin uretan, behin lehorrean dabiltzanak? Lehorrean bizi eta noz edo noz baino bustitzen ez diranak? Lehor-lehorrean diharduanik bere bai inor?

Zein argudio erabili daiteke euskaraz berba ez egiteko? Euskal Herriko urtegi honek aintzira baino urmael edo putzu itxura dauala sarritan? Askotan ez dala giro, urak handi dirala jakin arren, ezin onartu geinke preindoeuropeoetatik jatorkun berbeta bertan behera ixtea, geure burua lau pitxiagatik s a l t z e a .

Horrexegaitik da esperantzagarri AIKOR agertzea, zalantzan baino ekintzan jokatzea.

Gazteleraren prestigioaren aurrean, zer bide hartu, Txorierriko euskara orbiztean, nondik nora ekin? Seguru asko, lehengo ekintzak ez itxi eta politikan egin indar, halan ezkerrean nola eskuinean. Abertzalea eta erdaraz? Nazionalista eta erdaraz? Edo euskaraz dabil eta abertzalea edo nazionalista da kontuz, euskaltzale ez abertzaleak badira- edo erdaraz dihardu eta ez da.

Politikoak ez dira gidariak, bide-erakusleak? Agintari abertzale edo nazionalistei inork ez deutsie euskaraz bizitzeko eskatu behar, eurak eskatu behar deutsie herritarrei. Ze, euskal identitatea, nortasuna, euskaran ez bada, non da? Erdaldun bi diralako udalean erdaraz? Zertarako da orduan itzulpen simultaneoko tresneria! Noz arte holan?

Ea Lizarraren Garazipeko aintziran urak baretzen diran, Txorierriko ugaraxoak iretargi betean batera kantatu daigun!

Juan Luis Goikoetxea
Irakaslea eta Euskaltzain urgazlea

aikor! txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN,Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoanxxxtopagunea.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Maite Aranburu

Erredakzio taldea: Patxi Gaztelumendi, Javi Agirre, J.Angel Mentxaka, Amaia Rementeria Jizturi K.E., Carlos Cristobal, Sorne Ibaseta

Kolaboratzaileak: Belen Gana, Oihana Astobieta , Arantzazu Mendiguren, Fernando Olabarrieta, Gotzon Barandiaran

Euskera itzultzailea: Alberto Mtz. de la Cuadra
Publizitate eta banaketa: Arantza Atxutegi
Maketatzailea: Ainara Torres
Inprimategia: GZ printek
Ale kopurua: 4.000
Lege gordailua:

Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

ZER NON

-Eritxia.....3
-Laburrak eta albisteak.....4
-Erreportajea
Txorierriko txakolina.....10
-Zer deritzozu.....13
-Aurrematrikula kanpaina.....14
-Loiuztarrak Saharan.....16
-Teknologia.....18
-Neguko landareak.....19
-S.D. Zamudio.....20
-Sondikako Inauteriak.....22
-Sukaldaritza.....24
-Denbora - pasa.....25
-Agenda.....26

Bizkaiko jantzien erakusketa

Euren artean Txorierrikoak be bai

Txorierriko jantzia

Urtarrilaren 4tik 11 arte, Derioko kultur aretoan, eta Txoria Kultur Elkarteak antolatuta, oso erakusketa interesgarria egon zan.

Erakusketa bikoitza izan zan. Alde batetik, zenbait mahaitan atondurik, Euskal Herriko musika tresnak, azalpen eta argazki artean. Txistu ezberdinak eta bere inguruko tresnak, danbolina, danborra, silbotea, txilibitua.... Beste mahai baten dultzaina, Nafarroako gaitak. Galiziako gaita baten ondoan, konparazio bat egiteko, Zuberoan joten zan txanbela, artzain giroko ziran albokak, trikitixa.

Albo baten txalaparta bi, bata era klasikoan jarrita, otar eta lasto gainean. Arraroago egiten jakun tobera be.

Zuberoako tresnak be ez ziran falta izan, lehen aitatutako txanbelagaz batera, txirula eta ttun-ttuna. Tresneria hau guztia Etxebarriko bildumazale bati ezker erakutsi ahal izan zan.

Beste aldetik, aretoan sartuz gero 22 maniki deigarri ikusi eitekezan. Maniki hauen jantziak ez ziran gaur eguneko eskaparateetan aurkitu daitekezenak, ez horixe, beste kolore eta etxurakoak baino. Hasteko, XVI. gizaldiko zazpi jantzi, andra eta gizonezkoenak, ikusgarriak baten. Besteak XIX. eta XX. gizaldi hasierakoak: gizonezkoak, andrazkoak, umeak. Batzuk arruntak eta besteak dotoreak.

Honen artean atentzio gehien emoten ebenak "Txorierrikoak" ei ziran jantziak,

URI-DENDA
ERREBALE, 6 - TEL.94 455 80 22
LARRABETZU - BIZKAIA
ELEKTRODOMESTIKOAK - I.T.B. - BIDEOA - FERRETERIA

Txorierriko jantzia

edo behintzat, halan jartzen eban aurrean ebezan txarteltxo banatan (irudietan ikusi daitekezenak dira, pena da AIKOR kolorez ez ateratea benetako koloreak ikusi ahal izateko. Ea hurrengoan).

Jantzi guztiak Bizkaikoak izan arren, honeen egileak gipuzkoarrak dira, Errenteriako Iraultza dantza taldekoak hain zuzen.

Kapazak ete gara txorierritarrok jantzi horreek berreskuratu eta jaiegunetan jantzi eta paseoan ibilteko? Jaiegunetakoa dinogu zeren ez zirudian behar egiteko jantziak ziranik, paseateko baino. Ez legoke txarto domeka arrastietan geure herrietatik holan ibiltea.

Moda barria sortu geinke edo, behintzat, turisten kopurua igo.

Testua eta argazkiak: J. Angel Mentxaka

Bilbar tailerra 38 urteren ostean zarratute

Jose Mari Bilbao eta Miguel Barrenan tailerra, Larrabetzun egon dan tailer mekaniko zaharrena, 38 urteren ostean zarratu egin deurie. Serran aurrian horrenbeste kamioi, kotxe eta makinari konpondu eta gero zarratu egin da. Laster etxebizitzak egingo dire leku honetan.
Abenduko azken astean konpondu zituezan euren azken kotxe eta kamioiak bertan.

Landaidatarrak jubilatute

2002. urte hau landaidatarren jubilazio urtea be bada. Txiki-txikitatik, oso gazterik hasi ziren Josetxu eta Julian basoan beharrean. Urteetan, ez da egon aro txarrik pinuek bota eta kamian ibilteko.
Zenbat urtegaz ez dakigu, baie bi anaiak azkenean euren basko biharrak itxite ikusten doguz urien.

Preso bi aske gelditu dira

Abenduaren 27an, Ibon Meñika Zamudioko gazteak urten eban presondegitik eta, urtarrilaren 19an, omenaldia egin jakon bere herrian. Beste alde batetik, Jose Mari Astola sondikarrak uratrrilaren 17an urten eban kalera. Preso honek 20 urte emon ditu Espainiako kartzeletan, nahiz eta 1997tik baldintzapeneko askatasunean urteteko eskubidea euki.

GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK
LEZAMA
ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK
LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;
ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK
TF.: 94 455 50 19
Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)

LEJARRENE
JATETXEA
GARAIOLTZA, 102 - TEL: 455 65 46
LEZAMA (BIZKAIA)

Ane Peluquería
Solariuma
Masajeak
Elektrikoa
Aurpegiko tratamendua
Makillajea
Gorputz tratamendua
Depilazioa
Mikropigmentazioa
Abierto todo el día
Nekazari kalea, 1
Tel. 94 452 13 84

Lezama: euskararen aldeko hitzarmena sinatu egin da

Testua: Fernando Olabarrieta

Joan dan zemendiaren 9an, Goitioltzako txokoan batzar-afari haretan planteatu zanaren bigarren partea bete da abenduaren 29an, parterik inportanteena duda barik, orduan proiektu zana errealidade bihurtuko dalako, orduan euskera taldeak proposatzen ebana, herriko talde eta eragile sozialengandik erantzun positibo eta baikorra bihurtu dalako. Erantzuna benetan pozgarria izan da, talde gehien-gehienen, ia talde guztien ordezkariak euskeraren alde berbea eta sinadura emon dabelako.

Bai, pauso handia da emon doguna gure sinadura papelean iminteagaz. Danok dakigun legez, sinadura honek ezelango balio legalik euki ez arren, balio sinboliko handia daukalako: honegaz batera euskaldunaren berbea emotea adierazo gura izan dogu, honegaz batera, bakotxak bere neurrian, Lezaman euskeraren alde egingo dogula esan gura izan dogu.

Gauza pozgarria izan danez, zeozelan ospatu be egin gura zan. Horretarako, euskera taldetik sortu barri dan abesbatzak hiru bat abesti eskeini ebazan ospakizun modura, eta ondoren,. euskaldunon gustoko dan beste gauza bat be egin genduan: mahai inguruan, giro onean, lagun artean, zutunik edo jezarrita... kopu bat egin.

Berbea eta kantua euskeraz be bai

"Zorrizketan" zorriok berbetan ez eze kantetan be badakie. Gaztetan ikasitako kopla batek zabaldu deutse bidea: "kantatuaz, kantatuaz zorion eta penak/kantatuaz sortzen dira gure itxaropenak".

Hasi ziran ba aproba egiten eta, azkenean abesbatza talde bat sortu eben. Oraingoz 19 gizon-emakume dira abesbatzan eta taldea handitzeko asmoa dauke. Barikuetan arrastiko 19:30etan alkartuten dira udaletxeko kultur aretoan.

Inauteriak Derion

Urtero legez, Lainomendi taldeak herri erromeria antolatu du inauteri aurreko barikurako, otsailak 8, Derion. Arrastiko 6.30etan, kalejira koloretsua irtengo da eskolatik erdigunerantz.
Talde osoak –mozorratuta, ohitura den legez– arrastia animatuko du korruko dantza batuen bidez. Dirudienez, aurpegia estalita eramateak lotsa albo batera uzten laguntzen du eta ziur gaude bat baino gehiago ausartuko dela euskal doinuekin dantzatzeko dohainak dituztela erakusten.
Jalgi hadi dantzara!

Takolo Prritx eta Porrotx Larrabetzun

Otsailaren 15ean aratusteak ospatzeko asmoagaz, euskal pailazorik ezagunenak Larrabetzuko frontoian izango dire. Takolo, Pirritx eta Porrotxek "Aupa Kintxo!" izeneko lan barrie aurkeztuko deurie gure herrien. Nikaraguako umeen jolasak eta kantak ekarriko ditue gurera, eta ea inoiz baino ume gehiago batzen dan Larrabetzun. Sarrerak salgai egongo dire Txorierriko herri guztietan. Mozorrotute etorri ezkero, zatie hobeto ganera.

Consulting Sondika, S.L. B95148888
Jaione Llona
Aseguru Agentea
Allianz
686 45 40 70
Tlf. 94 4531807
Fax 94 4536027
Mitxine, 6 Behea
48150 Sondika-Bizkaia

Ciber Derio
MUNGIALDE, 11 - MUNGIARA BIDEA
☎ 94 454 07 01
ETORRI IKUSTERA. EZ ZARA DAMUTUKO!

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
Gorbea kalea, 5
Teléfono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Karlos pinturak
PAPERA ETA PINTURA ORO HAR
✆ 94 455 80 59
✆ 94 433 63 83
✆ 94 671 10 15
Axileta, 10 (Asua errepidea)
48195 LARRABETZU (Bizkaia)

ARTIZAR
MARKOA JARTZEKO TALLERRA
Justo Ajuria, 3
Tfno. 94 453 01 50
48150 SONDIKA
Bizkaia

CARROCERÍAS
TXORIERRI
R-M PINTURA
José Antonio Sanz
TXAPA ETA LABE-PINTURA
Torrelarragoiti poligonoa
Vial sur C-15, Nave BS-1
Telefonoa-Fax: 94 452 29 03
48160 Zamudio (Bizkaia)

Hiru Bat-en 30. urteurrenaren bideoa eta argazkiak ikusgai

Urriaren 20a, Zamudioko Hiru Bat dantza taldeak 30.urteurrena ospatu eban.Jendearen erantzuna ezin hobea izan zan (250 dantzari inguru eta bazkarian 700 lagun batu ziran).

Zamudioztarrak luzaro gogoan izango daben egun zoragarriaz gozatzeko aukera izan eben.
Horreraz ganera, Hiru Bat dantza taldekoek bideo bat editatu dabe, etaa honegaz batera, egunean eginikok argazki erreportaje zabal bat be badaukie. Bideoa zein argazkiak ikusi eta erosteko modua izango daabe Zamudio dorretxean egingo dan erakusketan. Espozizioa, otsailaren 1ean, zapatuz, goizeko 10etatil 14etara zabaldukko da.

900.000 euroko inbertsioak Neiker-en

Euskal erakundeek 900.000 euro –150.000.000 pezeta– baino gehiago jarriko dituzte Neikerren –*Derioko Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Institutua*– laborategi berrian. Berau uztailean irekiko da Derion.

Instalazio berriaren lehenengo harria ipintzeko ekitaldira Eusko Jaurlaritzako lehendakaria etorri zen. Berak azaldu zuenez, "behi eroen gaitzari aurre egiteko lan eta jarduera egokiaren bitartez, Neikerrek eta horren moduko beste enpresa batzuek sendotu egin dute herri honen eta bere erakundeen seriotasun irudia."

Ibarretxeren arabera, Neikerren laborategietan eginiko analisiak "funtsezkoak" izan dira, kontsumitzaileek ziur jakin dezaten euskal hiltegietan hitzen diren 24 hilabetetik beherako behi guztiei kontrolatu zaiela *behien entzefalopatia espongiforme* gaitza

GABRIEL ARESTI
GUREAN EGON ZANEKOA

Testua: Patxi Gaztelumendi

Urte barria hasi dogu eta jende guztia asmo barriekaz hasi da, urtero lez. Atzera begiratu ezkero urrin geratzen dira hainbet eta hainbet geuze. Larrabetzun, urtarrilagaz batera badago ondo gogoratzeko kontu bat. Oin dala 30 urte, Gabriel Aresti zanak hitzaldia eskaini zeuen Larrabetzuko Hori Baien. 30 urte pasa dire 1972ko urtarril hartatik. Baina hitzaldia gogoratzeagaz bat, Gabriel Aresti bera akorduen hartzeko aukera be izan leitike, behar bada.

Gogoratzeko moduan gainera, 1972ko urtarrilaren 1eko data daroala berak idatzitako poema batek, Larrabetzun izenekoak eta bera hil ostean liburu batean publikatu zanak. Poema hori leiduteagaz batera, orduko sasoiko kontuak datozkuz gogora. Larrabetzu eta Euskal Herriko giroa bera be datorku burura. Frankon sasoia, Burgosko epaiketa, euskal abadeen egoera (tartean Larrabetzuko Don Jesus), euskara batuaren sorrera eta beste kontu batzuk.

Bizi ez zituenantzat, historia lantzeko modu bat; bizitakoantzat, barriz, oroimena landuteko era. Gabriel Arestin poema horretan, hitzaldian izango zan moduan, Euskal Herriek 70. hamarkadan bizi izandakoa ikusten da, somatuten da. Eta ordurarteko bidaia egiteko idatzi doguz berbok.

Bertan aitatzen da –poeman nabarmena da hasieran- euskara batuaren eztabaida. Arantzazun 1968an Euskaltzaindiak Euskara Batua sortzeari ekin eutson, eta horrek, zelan ez, itzelezko eztabaida sortu zeuen Euskal Herri osoan. 1972. urteko urtarrilean, ondino be, eztabaida hori pil-pilean egon zan, eta
Larrabetzun be Euskara Batuak zer esan ugari sortu zeuen. Garaiko jendeak ondo gogoratzen ditu Hori Baien orduan egondako tirabirak. Hori Bai elkarteak berak, "H"-a jarri eutson izenari. Ordurarte, hemengo euskaran ez egoen "h"-rik eta.

Oin dala 30 urteko poema honetan, sasoia ez eze, Euskal Herriak bizi izandako egoera be ekarri gura izan du gogora

Arestik Ibarrolatar anaiak be aitatzen ditu, bertso bat eskainiaz poema barruan. Baina gehien aipatuko deuena, Jesus Naberan izango da. Naberan, Larrabetzuko abadea zan orduan, kartzelaratua be izan zana, eta abadeak orduan ezagun egin ziran. Horregaitik Amuriza be aitatuko dau. Amuriza, Naberan, Kaltzada eta beste abade asko eroan zituen kartzelara frankismoak. Aipamen berezia egiten deu Burgosko auziak epaituak izango ziren Mario, Itziar eta Xabierren ganea Itziar Aizpurua dira, besteak beste.

Poema batean sasoi bat batzea ez da erraza. Baie, oin dala 30 urteko poema eta hitzaldi baten aitzakian, sasoia ez ezik, egoera bat be ekarri gura izan dogu gogora: Euskal Herriak bizi izandakoa. Gabriel Aresti idazlea horren lekukoetako bat izan zan. Poema hau ez zan bera bizirik zala argitaratu, baina bera hil ostean egindako bere lan guztien bilduma baten argitaratu zan, bere etxean topauko eskuizkribuekaz eta. Natxo de Felipek, Oskorriko kantariak, ondo gogoratzen dau Larrabetzuko hitzaldia, Gabriel Arestik Oskorrirentzako saio berezi bat prestatu zeuelako, eta Oskorrik saio hori Larrabetzun be ein zeuen, baie hori beste baterako itxiko dogu.

Larrabetzun

Larrabetzuko
hiritar
eta
lagunak:
Gaur, Urtarril honetan,
hitz aspertu pare bat
erran behar dautzuet
bakarrik ene euskara
gaiztoan,
inork entenitzen omen ez duen
hizkuntza hain difizil
honetan,
erradazue,
larrabetzuar,
hiritar,
lagunak,
ez ahal nauzue entenitzen?
Ez ahal da euskara hau
euskara bat,
euskara garbi eta klaro bat?
Niri, oraingo,
urtarril honetarako,
lurretara erori zaizkit
belarriak eta potroak ere.
Ez dakit nik orain
Zer naizen,
Euskal-Herriko gizon oso bat ala
hermafrodita bat,
ez dakit nik zer den
Euskal-Herria,
herri sufritu bat
ala inoren enorantziatikan sortutako
espiritu santu dibinal
eta estupido bat,
gauza bat dakit bakarrik:
zer sufritu duen
herri honen gatik
Agustin honek:

Ibarrolatar anaia biok
asko badute sufritzen
euskaldunari odol urdina
nola ez zaio gorritzen?
Hau bada bake ederra
betor agudo gerra,
libre baikaitu jarritzen.
Nola andreak herriak ere
neketan dira erditzen.

Zer sufritzen duten hoiek,
nik eta zuek hain ongi ezagutzen
ditugunek:
Naberan Naberan
eta
Naberan Naberan
eta
Naberan Naberan
eta
Amuritza
eta
Mario, Itziar, Xabier...
eta
hemendik hilabete batzuetara
zer sufrituko dudan
nik ere,
Gabriel honek,
Euzkadiko
poeta
madarikatu
honek...

Gabriel Aresti
1972-1-1.

Txorierriko txakolina

ostera be saritua

Testu eta argazkiak: Maite Aranburu

Txakolin lez ezagutzen dogun ardao berezi honek harrera ona euki dau herritarren artean. Baina, edari honek sustrai luzeak daukaz, izan be, atxina-atxinatik baserriak izan dira Bizkaiko txakolinaren produzinoaz arduratu diranak.

Ez da harritzekoa Txorierriko txakolinak hain harrera ona eukitea, gizaldi asko eta askotan toki garrantzitsua euki daualako bertoko ekonomian eta gizartean. Gaur egun be, baserritarrak mahatsaren ura batzen segiten dabe, arteragokoen pausoei jarraituta.

1980ko hamarkadan, ardandegi jaube batzuk Bizkaiko Txakolinzaleen Elkartea (BIALTXA) eratu eben, salda hau ostera be bizteko asmoagaz. Elkartearen lanaren ondorioz, *Bizkaiko Txakolina* jatorri-izendapena sortu eben 1994an, ardao hau ezagutzera emoteko, bere balioa emoteko eta lagunduteko.

Bizkaiko Txakolina Jatorri-Izendapenaren Kontseilu Arautzailearen zereginen artean mahastien ganeko kontrola aitatu leike. Gehienbat, mahastiak ikuskatu eta uztaren edukiera neurtzen dabe.

Bizkai aldean daukagun eguraldiak eta gure orografía menditsuak eragin handia dauka gure baserrien produkzinoan eta, horren ondorioz, baita txakolinaren produkzinoan be.

ZURIA

Mahats mota: Munemahatsa eta hondarrabi zuria.
Batez beste, 11 alkohol gradu ditu
Kolorea: hori hitsa, argizarizkoa distira berdatsez
Sudurra: erdi mailako intentsitatea, fruitu eta lore zantzuez
Ahoa: freskoa, piti bat garratza.
Zerbitzatzeko tenperaturarik egokiena: 8 – 9 gradu

GORRIA -OILAR BEGIA

Mahats mota: hondarribi baltza.
Batez beste, 11 alkohol gradu ditu
Sudurra: fruitu zantzuak, erdi mailako intentsitatea.
Ahoa: freskoa, garratza, eta fruitu zantzukoa.
Zerbitzatzeko tenperaturarik egokiena: 10 gradu

BALTZA

Mahats mota: hondarribi baltza
Batez beste, 11,5 alkohol gradu ditu
Kolorea: bioleta, oso bizia.
Sudurra: fruitu eta baratzeko usainen zantzua.
Ahoa: izaera atlantikoa, oso berea.
Zerbitzatzeko tenperaturarik egokiena: 14 gradu

Maximiano Agirre

Lezamatar honek, Bilbon 40 urte lanean ibili ondoren, barriro bere sustraietara bueltatzea erabagi eban eta, gaztetan Larrabetzun egin ohi eban legez, jo eta ke ekin eutson txakolina egiteari. Lan neketsu horrek laster eman eutsozan lehenengo fruituak, bere txakolinari esker Maximiano Agirrek 16 sari jaso ditualako 2001. urtean. Azkenengoa, Santo Tomas egunean lortu eban txakolin zuriagaz.

"Sariak lortzeak asko pozten nau, zelan edo halan, urte osoan eginiko beharra saritzea lakoxe da eta"

Zer suposatzen dau zuretzat sari honeek irabazteak?

Poztasun handia emoten deust sari honeek lortzeak, zelanbait, urte osoan eginiko lana saritzea dalako. Ganera, aurten irabazi dodazan 16 sari horreen artean, Bizkaiko txapelketa nagusian lortu neban lehenengo saria gogoratzen dot bereziki, izan be, bertan lortutako arrakasta ez zan nolanahikoa izan!

Sari horrek diru-sariak izan ohi dira…

Normalenean trofeoagaz batera, pezetatxoren batzuk emoten deuskuez, txapelketaren arabera beti. Santo Tomasetan adibidez, 25.000 pezetako saria eskuratu neban.

Txapelketetako diruak laguntzen dau lana aurrera aterateko?

Diruak gastuak estaltzeko besterik ez dau balio. Txakolina ezagutuazoteko, izen ona eta prestigioa lortzeko, aldiz, nahiko baliagarriak dira. Gaur egun, jende asko datorkit etxera txakolin bila. Jakitunek badakie saritutako txakolina ona izaten dala. Eskuetatik kentzen deuste!

Txakolina egiteko orduan, zein da lanik gatxena?

Lanik gogorrena mahatsa batzea da. Ganera, zenbat eta mahasti gehiago izan, orduan eta latzago izaten da batze prozesu hori. Horrezaz ganera, bilketarako laguntza eukiten dot, bakarrik ezin izango neuke lan guztia egin.

Zer gomendatuko zeunskio txakolina egiten hasi gura dauan pertsona bati?

Lanbide honetan, oso garrantzitsua da zaletasun handia eukitea. Lan gogorra da, eta gatxa da espero duzun etekina hasieratik lortzea. Horrezaz ganera, denbora eta pazientzia nahikoa euki ezkero, esker oneko mundua da eta edozeini gomendatuko neuskio.

Etorkizun osasuntsua ikusten al deutsazu txakolinari?

Agian baliabiderik ez daukelako izango da, baina nik ez dot gaur egungo gazteriarengan txakolina egiteko zaletasunik ikusten. Ni prest egongo nintzake arlo honen nondik-norakoak ezagutu gura daun edonori mundu honen ganekoak erakusteko. Nire aldetik, indarra eta gogoa geratzen jatezan bitartean, txakolina egiten jarraituko dot.

Kepa Larrabeiti

Belaunaldi barriko txakolin-egile horreetakoa da. Santo Tomas azokan txakolin gorriagaz lehenengo saria eta zuriagaz bigarrena lortu eban zamudioztar honek. Goizetan lan egin ondoren, orain dala gitxi berregin dauan baserrian ekiten deutso txakolindegiko zereginei. 2.300 mahatseko landaketa hau bere bizitzako amesetariko bat lortzea izan da, betidanik gura izan daualako etxe bat lurgintzari loturik eukitea.

"Txakolin ona egiteko baharrezkoa da teknikea ondo ezagutzea"

Diru asko behar da horrelako mahatssail bat lortzeko?

Inbertsinoa ez da oso handia izaten, baina egia da hasierea ez dala beti espero dozun moduko erreza. Gure etxean mahatsak jarri genduzanean, 250 pezeta balio eban landara bakotxak. Kopuru horri gehitu behar deutsazuz landarai eusteko behar dan burni haria, estalkia eta esku lana.

Gainera, lau urte pasa arte mahatsak ez dau fruiturik emoten. Beraz, hasieran egiten dan inbertsinoa aurrera begira egiten da.

Horrezaz ganera, upategietan enplegatu behar da diru gehiena, gordailuak eta tresneria berezia beharrezkoak dira eta. Gure kasuan, hasieran egin gendun inbertsinoa erabat konpentsatuta dago.

Gaur egun ez dira antxinako egurrezko upelak erabiltzen... Teknika barriek txakolina hobetzen laguntzen dabela uste dozu?

Teknika barriak txakolina egitea errazten dabe, eta horrek arriskua dakar beragaz. Arazoa da ardao-saltzaileak txakolina egiten hasi dirala. Enpresariak lurragaz ezelango loturarik euki barik gura dabe mahatsa landatu eta txakolin produkzinoa industria lez antolatu.

Zertan egingo leuskio horrek kalte txakolinari?

Argi dago modu txikian edo ertainean txakolina produzitzen dogunoi upategi handiek ez gaituela kalitate aldetik irabazten. Zenbat eta enpresa handiagoak egin, orduan eta kalitate aldetik kontu gitxiago eukiko dabe, ez dabe mahatsa geure beste mimatuko, eta lurragaz ezelango loturarik ez leukiela eukiko.

Erakunde ofizialek diru laguntzarik emoten deutsuez txakolin-egileoi?

Erakundeek mahatsa landatzeko emoten ditue laguntza batzuk, baina uste dot laguntza horreek politikoek kontzientzia garbitu daien baino ez dabela balio. Txakolin egileek ikerketa arloan inbertitzea behar dogu, legamiaren ikerketan, esaterako.

Zein da txakolin ona egiteko sekretua?

Txakolin ona egiteko baharrezkoa da teknikea ondo ezagutzea. Adituen esanetan, ekoizpenaren %70aren arrakastea soloan dago, ez upeltegian.

GUSTUKOA DUZU TXAKOLINA?

Jose Ramon Bilbao
Zamudio

Apurtxo bat besterik ez, nahiago dut ardo on bat. Batzutan, jaten dudanaren arabera, baliteke txakolina edatea, baina gutxitan. Nire ustez, garratzegia da.

Maria Artetxe
Lezama

Bai! Asko gainera! Beti izaten ditut etxeko upategian zenbait botila freskatzen. Gainera, ardoa baino askoz ere osasuntsuagoa dela uste dut.

Izaskun Sagastigorria
Larrabetzu

Tabernetan jartzen duten txakolina ez dut gustuko, gutxi batzuk besterik ez ditut edaten, ezagunen batek egindakoa bereziki. Horretaz gain, azokaren batera noanean txakolin ezberdinak probatzen ditut.

Maje Larrañaga
Larrabetzu

Bizkaiko txakolina hartzen dut gehienbat, baina etxetik kanpo ez dut inoiz edaten.



Javier Arce
Zamudio

Ez da nire edaririk gustukoena, baina noizean behin edaten dut. Gehienbat goizean poteoan noanean, baina gutxitan.

Txomin Anakabe
Loiu

Oso gutxitan edaten dut txakolina, baina noizean behin tragotxo bat edatea gustatzen zait, nahiz eta normalean ardoa edaten dudan.

inmobiliaria bilbao
Aralar kalea, 2 behea
Tfno./Fax:94 454 10 94
Mobila:620 223 200
48160 DERIO (Bizkaia)

Inmobiliaria ETORKI
Herriko Plaza, 1 behea
Tel. 94 454 50 53
Mobila: 607 32 35 53
48160 DERIO

TXORIERRI Inmobiliaria
ZUREGANDIK GERTUEN DOZUEN INMIBILIARIA
AHOLKULARITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ESKUALDATZEAK
SALEROSKETAK
SEGUROS BILBAOREN AGENTZIA
Justo Ajuria, 2 SONDIKA - BIZKAIA
Tel./Fax: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
E-mail: txori-erri@euskalnet.net

MATRIKULAZIO EPEA LASTER ZABALDUKO DA
Txorierriko Ikaskuntza Publikoan

Une honetan bikote bat baino gehiago egongo da buruari bueltak ematen, "*geure señe, jaio baño ezta in, eta eskoletan pentsetan gagoz*". "*Bai, pentsatu bearku noz eta nora eron umea eskolara*"

Holakoak ere entzungo dira etxe askotan: "*Hain txikia da ta!. Zelan ataku etxetik ba?*", "*Aurten, bi urtegaz ondiño ez. Pentsau bez!*", "*Baña gizona, 3 urte dekoz ta derrigortu iten gaitue*". Edo beste iritzikoak ere "*Hobeto lenbailen, oitu daiten!*", "*Guaitik ez zan jongo baña, eztekogu nok jagon ta!*". Kontua da, iritzi batekoa izan edo bestekoa, lehenago edo beranduago eskolatu egin beharko dela seme-alaba hori.

Beste era honetako elkarrizketak ere entzun daitezke: "*Apunta biu, baña ziurta biu euskeraz emoten dotziela, D eredua dala*". "*Kontuz non apuntaten dozun señe, kolegio pribatu geyenetan eztotzie euskeraz irekatziko ta, ezteukie D eredurik eta*". "*Argi dekot biarko egunen zeozer izen gura badau, euskeraz ikasi bearko dauela, baña ondiño eztot aztertu herriko eskoletan zelan emoten daurien. Geitu bearkot*"

Trantze horretan bazaude ondorengo informazioa erabilgarria izango zaizu ziur antzean. Txorierriko ikaskuntza publikoko zentroak herrian bertan dauzkagu, eta hauetaz zerbait jakin gura baduzu, alboko taulek uste dugu zerbait lagundu dezaketela. Ez ahaztu ere, XXI. mende honen hasieran, ez gutxi kostata, D eredukoak direla gure haran honetako eskola publiko guztiak.

Ez ahaztu matrikulatzeko epea otsailean izaten dela urtero. Lehen aldiz matrikulatzen direnentzat da derrigorrezkoa, besteentzat ez. Beraz, adi egon!

Txorierriko eskaintza ikaskuntza publikoan

	Haur hezkuntza		Lehen Hezkuntza	DBH	Batxilergoa	Heziketa Zikloa
	0-3 urte	3-6 urte	6-12 urte	12-16 urte	16-18 urte	(16 urtetik gora)
Larrabetzuko eskola (1)	2 urte	✓	✓			
Lezamako eskola	2 urte	✓	✓			
Zamudioko eskola	2 urte	✓	✓			
Derioko eskola	2 urte	✓	✓			
Sondikako Gorondagane eskola	2 urte	✓	✓			
Loiu (2)						
Erandio Goikoako Goiko-Landa eskola (3)	2 urte	✓	✓			
Tzorierri Institutua				✓	✓ (4)	✓ (5)

(1) Larrabetzura Morgako umeak ere badatoz.
(2) Loiun ez dago heri eskolarik eta umeak Sondikako eskoletara joan behar dira.
(3) Erandio Goikora Astrabudu eta Erandio Behekoako ume batzuk ere badatoz. Bertako neska-mutilak DBH egitera Erandio Behekoara joaten dira, ez Deriora antzina bezala.
(4) Eskaintzen diren Batxilergo motak: Natur eta Osasun Zientziak. Giza eta Gizarte Zientziak. Hala ere Teknologi Batxilergoko ikasgaiak ematen dira.
(5) Une honetan Erdi Mailako Heziketa Ziklo bat ematen da.: Natur Ingurunean Gorputz eta Kirol-Ekintzen Gidaketa

CAFETERIA
iAZi
Eguneko menua eta
Menu berezia
JATA KALEA, 2 - Teléfonoa 94 454 29 56 - DERIO (Bizkaia)

GASTRONOMIA BASKA
Cocineros Artesanos
ZERBITZU BEREZIAK (HERRI BAZKARIAK, LUNCHAK, ...)
KOLEKTIBITATEEI ZERBITZUAK (IKASTETXEAK, LANTEGIAK, ...)
TORRELARRAGOITI IND. Z.G · 48.170 · ZAMUDIO
☎ 944 523 800 944 523 942 gastrobaska@gastrobaska.com

Zenbait datu interesgarri

	Ikasle kopura	Irakasl kopuru	Jantoki	Autobus	Eskola kanpoko ekintzak
Larrabetzuko eskola	113	11	Bai	Bai	Euskal dantzak. Margolaritza. Antzerkia. Ludoteka eskola bertan.
Lezamako eskola	123	16	Bai	Bai	Margolaritza. Ingelesa. Gimnasia erritmikoa. Karate. Futbola. Zeramika proiektua.
Zamudioko eskola	102	13	Bai		Eskulanak. Judoa. Bertsolaritza.
Derioko eskola	242	24	Bai		Pintura. Saskibaloia. Psikomotrizitatea. Neskentzako futbola. Esku pilota. Multikirola. Xakea. Ludoteko eskola bertan.
Sondikako Gorondagane eskola	193	17	Bai	Bai	Multikirola. Futbola. Igeriketa. Mendi irteerak.
Erandio Goikoako Goiko-Landa eskola	155	16	Bai	Bai	Tailerrak
Txorierri Institutua	440	43	Bai	Bai	Saskibaloia (neska eta mutilen taldea), futbol 5, atletismoa, eski alpinoa, hipika, surf, gimnasia erritmikoa "Miragarri taldean", eskupilota, antzerkia.

Datu erabilgarriak

Eskola	Tfnoa
Larrabetzuko eskola	94 455 81 72
Lezamako eskola	94 455 51 19 faxa: 94 455 51 63
Zamudioko eskola	94 452 08 26
Derioko eskola	94 454 12 46
Sondikako Gorondagane eskola	94 453 10 20
Erandio Goikoako Goiko-Landa eskola	94 453 30 39
Txorierri Institutua	94 454 32 58 faxa: 94 454 32 62

Ez dira ahaztu behar ere ikastetxe hauen beste zerbitzu eta proiektu hauek:
-Psikologoa, logopeda eta fisioterapeuta. Behar duten ume guztientzat lagungarri dena eta eskolen arteko koordinazioari esker, eskola guztietara heltzea lortu dena.
-Ingeles goiztiarra proiektua. Hirugarren hizkuntzaren garrantziaz jabetuta (gure kasuan ingelesa), azken urte hauetan 4 urterekin hasten dira umeak ingelesa ikasten.
-Udaberriko jokoak. Txorierriko eskolen artean kirola bultzatzeko proiektua.
-Bertsolaritza. Eskola batzuetan astero lantzen den gaia.
-Informatika eta internet. Azken urteotarako aurrerakuntza eskoletara ere heldu zaigu.

Testua: J.Angel Mentxaka

S.A.T. Legu biberoak
Goitioltza 36
Tfnoa: 94 455 61 98
faxa: 94 455 64 17
48196 LEZAMA

Granja TEPEYAC S.A.T. E-140
ARRAUTZA BIKAINAK
EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK
Aretxalde, 107 - 48196 LEZAMA -BIZKAIA ☎ 455 60 94

SANTI MAMI
ALBAITARITZA
Nerea Pedrosa Colg. 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Santi Mami 1 - 48016
ZAMUDIO - BIZKAIA
Telefonoa 94 454 13 77
Tlfno. mobila 689 04 31 15
FAX 94 454 12 15

HARATEGIA
J. ELORRIAGA
Etxeko berezitasuna: bertoko okela
Iturrikoetxe, 7 tlfnoa.: 94 455 89 41 LARRABETZU

ANDER LIPUS
"Ardoaz"
Antzerki monologoa
Otsailaren 19an, martitzena
iluntzeko 20:00etan
ZAMUDIOKO DORRETXEA
Otsailaren 5ean, martitzena
arratsaldeko 18:00etan
ZAMUDIOKO DORRETXEAN
umeeentzako saioa
Zamudion be etorkizuna euskeraz dator.
MATRIKULATU ZURE SEME-ALABAK "D" EREDUAN.
LAGATZU
ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA
zamudion euskeraz? hoba ez!

PANADERIA LA MODERNA
OKINDEGIA - DASTALEKUA
Aretxalde, 64
Telf.: 94 455 50 36 48196 LEZAMA

Bocateria
Otaztekoa
Pizzeria
ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA IA TXORIERRI OSOAN
ZAMUDIO TELF.: 9 44 52 11 42

SAHARAKO EXILIATUEKIN SENIDETUTA

Adobe eta harrizko Saharar etxea

Pasa den urteko martxoan, Iñaki Gaztañaga Loiuko alkatea eta Josu Goikoetxea zinegotzia Argeliako basamortura joan ziren, Bucra izeneko herrian exiliaturik dauden sahararrekin senidetasun hitzarmena sinatzeko.

Iñaki Gaztañagaren esanetan, Fronte Polisarioak eta Euskal Fondoak egiten zuten lana aztertu ondoren bururatu zitzaien bidaia hau antolatzeko ideia.

Erakunde horien zereginetako bat hauxe da: harriak eta harea besterik ez dagoen Argeliako basamortu horretan 25 urte daramatzaten sahararrei (euren asmoa Saharara ahal bezain laster bueltatzea da) ahalik eta egoerarik egokiena ziurtatzea.

Bucrako biztanleak 25 urte daramatzate exiliaturik Argeliako basamortuan

Duela zortzi-hamar urte jarri ziren martxan senidetasun mugimendu hauek, Gasteizen dagoen Asociación de Amigos del Sahara delakoaren eskutik. Erakunde horren barnean, Fronte Polisarioaren delegazio bat dago eta haren bitartez ezagutarazten dira Saharan bizi direnen arazoak.

Loiuko Udalak, beraz, bertako biztanleei laguntza eskaintzeko antolatu zuen iazko martxoko bidaia. Helburua, gehienbat, Txorierriko udalerri honen eta Bucraren arteko senidetasun hitzarmena sinatu eta herri bion arteko laguntza ziurtatzeada.

Horretaz gain, esan beharra dago Loiu ez dela Txorierritik sahararrei elkartasuna erakutsi die herri bakarra. Besteak beste, Larrabetzuk, Deriok eta Zamudiok ere sinatu dituzte Saharako beste herri batzuekin senidetzeko hitzarmenak.

Loiuko alkateak senidetasun hitzarmena sinatu zuen Bucrako biztanleekin

Larrabetzuk, Deriok eta Zamudiok ere sinatu dituzte Saharako beste herri batzuekin senidetzeko hitzarmenak

2001ean eskuratutako laguntzei esker, bi kamioi erosi zituzten kanpamenduan ura banatzeko

Bidaia horren ostean, abenduaren 17-19 bitartean, Bucran ateratako argazki erakusketa antolatu zen. Josu Goikoetxearen esanetan, helburua ez zen mugatzen hitzarmenaren sinatze-ekitaldiko argazkiak erakustera. Erakusketa "bertako biztanleen egunerokotasuna azaltzeko modurik onena" zen.

Jardunaldi horien bigarren egunean, Fronte Polisarioko ordezkaria etorri zen, bere herriaren egoera zuzenean azaltzera eta elkartasuna bilatzera.

Erakunde horren ordezkariak azaldu zuenez, Euskadira urtero datozen 250 umeentzat oso onuragarria da gure lurretara etortzea, horrela, beste kultura bat ezagutzeaz gain, eduki ditzaketen osasun arazoak konpontzen dituztelako.

Bertako buruzagiek diotenez, Europa osotik bidaltzen zaizkien laguntzei esker lortu dute basamortu zatitxo hori bizitzeko egokitzea. 25 urte pasa ondoren, argia eta ura lortu dituzte. Gainera, oasi batean ortu bat ereitea lortu dute.

Horrezaz gainera, 2001ean eskuratu zituzten laguntzei esker, bi kamioi erosi ahal izan dituzte kanpamendu horretan ura banatzeko.

Gaztañagaren aburuz, "diru laguntzok ondo datozkie, baina Loiuko herriak beste aurrerapauso bat egin nahi du hurrengo urterako, eta ume saharar batzuk ekarri nahi ditugu, datorren uda gure artean igaro dezaten".

1998an, Saharako Gobernuak itun bat sinatu zuten Marokoko agintariekin eta haren bitartez sahararren artean erreferenduma egiteko konpromisoa lortu zen. Nazio Batuek begirale lanak egingo zituzten. Baina, azkenean, erakundeak ez dira ados jarri hauteskundeotan nortzuek bozkatu behar duten erabakitzeko.

Datorren udan Saharako ume batzuk ekarri nahi dituzte euren osasun arazoak konpontzeko

Testua: Maite Aranburu

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak

Talleri kalea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

LARRABETZUKO ESTANKOA

Tabakoa, prentsa, loteriak, kiniela...

Andra Mari kalea, 1. LARRABETZU
Tfnoa: 944 558 110

ZAMUDIOKO TEKNOLOGIA PARKEA

Testua: Maite Aranburu

Egoitza Zamudion duen elkartegi hau 1985ean sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen sustapena dela medio. Honen helburua da teknologia industrial aurreratuen esparruetan dibertsifikazioa bultzatzea eta teknologia eta berrikuntza zabaltzen laguntzea.

Gaur egun Estatuan aitzindaria den eredu arrakastatsu honek ehun enpresatik gora dauzka bere sarearen barruan. Horrez gain, lau Teknogune eta European Software Institute ere biltzen ditu. Gaitasun maila handiko 4.000 lanpostu baino gehiago sortu dira dagoeneko, urteroko fakturazioa 1,5 milioi eurotik gorakoa izanik.

Zamudioko Parke hau komunikazio eta informazio teknologien gunerik garrantzitsuena da Euskal Herrian. Izan ere, bertan lan egiten duten enpresa guztietatik, %53k teknologiaren arlo horretan dihardute.

Ericsson, Euskaltel (Euskadi mailako eragilea) eta Global One dira bertan ezarritako telekomunikazio enpresa batzuk, 15 baino gehiagoren artean. Enpresa hauetan 15 milioi eurotik gorako inbertsio – programak bideratzen dira urteko eta aparteko garrantzia eskaintzen zaio I+G (Ikerketa eta Garapena) atalari.

Teknologia Parke honetan, ITP ere kokatuta dago, hau da, aeronautika alorrean dagoen enpresarik garrantzitsuenetariko bat. Bere jarduera nagusia aireuntzientzako turbinak egitea da. Urte bakoitzeko 42 milioi eurotik gorako inbertsioak bideratzen ditu egitasmo eta garapen teknologikora. Jarduera honi dagokio Parke osoko enplegu zuzenaren %13.

Zentro teknologiko honen kalitateari buruz aipatu beharra dago 1998ko urrian lortu zuela ISO 9002 arauen araberako kalitate ziurtagiria duen Europako lehen teknologia parkea izatea.

Gaitasun maila handiko 4.000 lanpostu baino gehiago sortu dira eta urteroko fakturazioa 1,5 milioi eurotik gorakoa da

Teknologi Parkea
Parque Tecnológico



LANDAREAK EURI SASOI HONETARAKO

Testua: Amaia Rementeria

Sasoi honetarako landareei buruz idazteko eskatu didate eta Joseba Sarrionandiaren olerki baten zatitxo bategaz garai hau deskribatzeko ausardia barkatuko didazue:

Eta zer esan euriaz, salbu eta ortzea lainotu eta euria hasi dela. Jende gehiena barruratu da, batzuk ez dute leihorik hertsi, besteek bai, eta denak norbereganatu dira.

Norbereganatze horretatik esnatzen eta aurrera egiten naturak eta zorionez gaur eguneko baserritar landare-lore ekoizle edo produktoreek lagun gaitzakete. Zelan? Ba, gure txoko maitagarrienak, bai barrualdekoak zein kanpoaldekoak landareekaz kolorez betez.

Spathiphyllum wallissi

Barrualderako sasoi honetako loredun landarerik egokienak urte osoan komertzializatzen direnak litezke: Anthurium-ak, orkidazea mota guztiak, spatifilium-ak e.a Berogailua lar ez baduzue erabiltzen, *azalea* eta *ziklamenak* ere jar ditzakezue. Hori bai, kanpoaldeko landareak direla gogorarazi behar dizuet, landare biek hotza maite dute, beraz, beroagaz kontuz! *Azaleak* eta *ziklamenak* platertxo batean ureztatzea eskatuko dizue, lehenak ur gehiago behar duelarik..

San Jose lore garaduna

Kanpoalderako, batez ere lorategia duzuonontzat, *primula, pentsamenduak,* mota guztietako zuhamuxkak edo arbustiboak e.a. jartzea komeniko litzaizueke. Primulak edo San Jose lorak oso gogorrak dira eta izozteekaz ere ez zaizkizue erreko. Pentsamenduak, udagoienean hasikodira loratzen eta udara arte loraz beterik edukiko dituzue. Landare biak merkeak eta errazak dira zaintzeko: argitasuna, ur asko eta ongarria.

Zuhamuxkak edo arbustiboak, koniferak, larrosondoak, udaberrirako patataloreak: tulipanak, nartzisoak, jazintoak, krokusak, irisak e.a. jartzeko sasoia ere bada, honela landatzen direnean behar duten ur guztia Sarrionandiak aipatutako euriak emango die, udaberrirako orritsu edo loratsu jarriko zaizkizuelarik.

Arbola eta arbusto batzuk ere garai hau aukeratzen dute "norbereganatze" edo "atseden" hori egiteko, geure eskuek egin beharko dituzte, beraz, garbiketa eta berritze beharrak: arramak inausi, eskejeak egin eta eman gura dizkiegun formak lantzen hasi.

LAPiKO/S.L.
Eraikuntzarako materialak - Dekorazioa
TEILATUAK
Garaioltza, 67
Tel. eta faxa: 944 556 398
48196 LEZAMA
BIZKAIA

Liliak
Loradenda
OTSAILAREN 14an:
SAN BILENTIN
-egun osoz zabalik-
Erdiko kalea, 2
tf. 94 454 12 23
48160 DERIO
Mobila: 657 79 75 93

ZAMUDIO-DERIOko
LURLANGILEEN ETXEA
COOPERATIVA
AGRICOLA GANADERA
DE ZAMUDIO-DERIO
BASERRITARREN ZERBITZURA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Fax 94 454 12 15
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

“Zorte txarrak galarazten digu golak sartzea”
Alberto Iñurrieta S.D. Zamudioko presidentea

S.D. Zamudio futbol taldeak 60 urte daramatza futbol zelaietako belarra zapaltzen. Adituen ustetan, 1943. urtean sortutako talde hau Txorierrin dagoen ekiporik garrantzitsuenetariko bat da, nahiz eta aurtengo denboraldia pasa den urtekoa bezain ona ez izan.

Alberto Iñurrieta taldeko presidentearen iritziz, “taldea ona eta gogorra da, baina, dirudienez, punteria falta zaio zenbaitetan”.

“Buelta berrian burua altxatuko dugulakoan nago”

Pasa den urtean bosgarren sailkatu ondoren, aurten zer uste duzu gertatzen zaiola taldeari?

Taldeak ez du golik sartzen, punteria falta da. Horixe da taldeak momentu honetan daukan arazorik larriena. Gainera, beheko postuetan zaudenean, soinean harri handi bat bazeneuka bezala sentitzen zara, gainean daukazun erantzukizuna izugarria da. Horretaz gain, domekaro irabazteko ardura morala daukagu, eta horrek psikologikoki asko hunkitzen ditu jokalariak.

Egoera hobetuko dela uste duzu?

Baiezkoan nago! Orain buelta berria hastekotan da eta burua altxatuko dugulakoan nago. Erabat ziur, gainera.

Zer aldatu beharko litzateke taldean, emaitzak hobetu daitezen? Entrenatzaile edo jokalari berriren bat?

Martín Urreola taldeko entrenatzailearengan, erabateko konfiantza daukat, baita jokalariengan ere. Hala ere, badirudi denboraldi honetan zoria ez dagoela gure alde. Momentu honetan garai txarra tokatu zaigu, baina egoera hau laster aldatuko delakoan gaude. Golak sartu behar ditugu, hori da behar duguna. Gainera, guk badakigu ez garena hain txarrak, izan ere, partidu asko, askoz jota, gol bat edo biren aldeaz galdu ditugu.

S.D. Zamudioko jokalariek gogor jokatu beharko dute mailatik ez jaisteko

“Entrenatzaileagan eta jokalariengan erabateko konfiantza daukat”

cianoplan s.a.
global printers
Elkarte Teknologikoa 105 z/b
48170 Zamudio
Tfnoak 944 20 97 91
944 20 97 87
http:\www.cianoplan.es
• Inprimatze eta plano kopiak.
• Kartelak kolorez eta z/b.
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
• Fotokopiak kolorez eta z/b.
• Era desberdinetako koadernaketak.
• Plastifikazioak.
• Fax zerbitzua.

"19 partiduetatik, gutxienez, 11 irabazi behar ditugu mailatik ez jaisteko"

S.D. Zamudioko etorkizuna gaztetxo hauen botetan dago

Diru gehiago izanez gero, emaitzak aldatuko lirateke?

Ez dut uste diruak egoera aldatuko lukeenik. Batzuen ustetan, jokalariei prima gehiago emanez gero, hobeto jokatuko lukete, baina gure taldeak ez du horrela funtzionatzen.

Arbitroek errurik al daukate horretan?

Ez dut uste arbitroei errurik bota behar zaienik. Euren lana baino ez dute egiten eta. Egia da batzutan erratu egiten direla, baina gehienetan arrazoia izaten dute. Zalantzarik gabe, gainera!

Uste al duzu fitxaketa berri batek lagunduko lukeela taldea indartzen?

Egia da fitxaketa batek lagundu egingo gintuela, baina momentu honetan ez dago jokalaririk hartzeko. Izan ere, honelako talde batera etortzeko, jokalariak "eginda" egon beharko luke, esperientziadun gazte bat beharko genuke. Azkeneko ekarri duguna Egoitz Zabala izan zen. Joan den urtean gurekin egon zen jokatzen, baina aurtengo denboraldian Amurrioko taldeak hartu du. Badirudi ez zegoela ados han jokatzen zituen minutuekin eta gugana etorri da berriro ere.

Taldean sartu zineneko egoeraren eta oraingoaren artean, nolako ezberdintasunak ikusten dituzu?

Gaur egun, taldea oso ezberdin ikusten dut, sartu nintzen garaikoarekin alderatuta. Lau urte daramatzat S.D. Zamudion, eta bi besterik ez presidente karguan. Nire ustez, orain daukagun taldea duela lau urtekoa baino hobeagoa da. Lehengo taldea gazteagoa zen eta esperientzia gutxiagokoa. Horrek sailkapenean azkenengo geratzera eta mailatik jaistera eroan gintuen, hirugarren mailatik preferentera hain zuzen ere. Hurrengo urtean zenbait fitxa berri egin genituen, eta berriro ere goragoko mailara igotzea lortu genuen.

Zein da hemendik aurrerako finkatu dituzuen helburuak?

Oraindik bigarren buelta hastear dago, eta gure helburua da jokatzeko geratzen zaizkigun 19 partiduetatik, gutxienez, 11 irabaztea, izan ere, 45 puntu behar ditugu berriro ere mailatik ez jaisteko. Beraz, argi daukagu hemendik aurrera inoiz baino gogorrago egin beharko dugula lan, baina lortuz gero, orduan bai egingo dugula itzelezko afaria!

Testua: Maite Aranburu

OPTIKA IKUSLAN

Betaurreko graduatuak
Kontaktu lenteak
Eguzkitako betaurrekoak
Lehenengo markak

Oiz kalea, 3 tfnoa: 94 452 28 18 ZAMUDIO

OSKARBI fotografoak
JOSEBA APEZETXEA
TALLERI KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 605 705 087
E-mail: apeze@euskalnet.net

Gestión Zamudio
Aholkularitza Fiskala
Jon Vázquez García
AKTUARIOA - EKONOMILARIA
Gorbela, 7 , Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tfno.: 944 522 141 - Fax: 944 522 142
E-mail: jvg.@mundivia.es
C.I.F. B 95122404

2002ko INAUTERIAK SONDIKAN... ETA HAUEKIN 23!

Testua eta argazkiak: Jizturi K. E., Carlos Cristobal, Sorne Ibaseta.

Dena 1979ko Inauterietan hasi zen, Derioko eskolatik jaso genuen gonbidapenarekin.

Bai, dena eskoletan hasi zen: Iñaki, Ana eta beste zenbait irakasle eta gurasok gogoz ekin zioten eskoletan zerbait egiteari.

Larunbatean izango da sardinaren hileta

Handik bi urtera, herri mailan ere zerbait egin zitekeela erabaki eta deialdi orokorra egin zuten. Hainbat lagun interesatu ziren eta Inauterietako Komisioa sortu zen. Urteak pasa ahala, batzuk joan ziren bezala, gazteak ere gehitu ginen Komisioan. Azkenean, talde txikia baina eraginkorra gelditu zen.

Hogei urte hauetan gauza ugari aldatu dira gure jai honetan: Eskoletan, umeentzat ospatzen zen garai hartan Inauterietako asteartea zen jaieguna. 1981ean herri osoarentzako jaia egiten hasi zenean, Bilboko Inauteriekin batera ez egiteko, Inauterietako asteartearen osteko larunbatean ospatzen hasi zen. Kexatu zirenak ere egon ziren baina...

Garrantzi handiko hurrengo aldaketa 1987an egin zen: handik aurrera, Inauteriko jaia ostiralean hasi zen, "gazteentzako" kontzertu batekin. Talde askok Sondikatik famara salto egin zutela esan genezake: Baldin bada (1987), Yassa (1988), Potato (1989), Alproja (1990), Tapia eta Leturia (1991), MCD (1992), Parabellum (1994), Etsaiak eta Deabruak teilatuetan (1996)...

Sondikako inauteriak bailarako ezagunenak dira. Urtero ehundaka kanpotar etortzen dira

Sondikarrek hilabeteak ematen dituzte mozorroak prestatzen

Egunean zehar egiten diren ekitaldiak ere mota askotakoak izaten dira. Gauza batzuk ez dira batere aldatu: umeentzako larunbat goizeko ekitaldiak eta jubilatuentzako kafea, esate baterako, urteoroko betebehartzat hartuta dauzkagu. Beste ekitaldiak aldatuz joan dira, beti Sondikako biztanleen eta ingurukoen partehartzeari begira. Hauetariko batzuk larunbatean egongo diren pailazoak eta txaranga izango dira.

Urte hauetan guztiotan benetako Inauterietako giroa lortu dugu: Sondikako biztanlerik gehienak mozorrotu egiten dira, hilabeteak ematen ditu euren ideiak garatzen, beti bezala, mozorroa azken momentuan amaitzeko. Eta ez Sondikakoak bakarrik. Baita Txorierri, Bilbo eta inguruko hainbat herritakoak ere...

Hau da 1979an eta 45.000 pezetako aurrekontuarekin hasi zen Inauteriaren historia. Iazko aurrekontua bi milioi ingurukoa izan zen. Atera kontuak! urrerapen bezala, 2002koaren zirriborroa komentatu dezakegu: Ostiralean Txapelpunk, Any my shock eta Hyssopus-en kontzertua egongo da gorputzak agoantatu arte. Larunbatean, denok mozorroturik, herria esnatzeko kalejira egongo da goizeko hamaikak aldera.

Gero ume-jolasak eta poteoa gaiteroekin, bazkalordua ailegatu bitartean. Bazkaldu eta gero, jubilatuei kafetxoa pastekin eskaintzen diegu omenaldi txiki bezala. Siestatik jaiki eta gero, fanfarrea dugu, eta gero elektrotuna emanaldia egongo da, sardinaren hileta baino lehen. Eta amaitzeko, Ur Gabe eta Cinco Contra el Calvoren eskutik…¡Itzelezko berbena!Hau guztia irakurri eta gero... baietz animatu!!

Kudeaketarako Sozietatea
Birzuklatzeko Zentro Aurreratua
SOGECAR
Tratamendu lerroak
Erabilitako olioak
Agortutako taladroiak
Disolbatzaileak
Automozio
hondakinen kudeaketa osoa
Torrelarragoiti Ind. z/g 48170 Zamudio
Teléfono: 944 977 177 - Fax: 944 522 619

ERDU GEUGAZ!
MATRIKULA ZABALIK
MATRILULATZEKO EPEA: OTSAILAREN 15ERARTE
BULEGO ORDUTEGIA: 12:00ETAIK - 20:00ETARA
TXORIERRIKO UDAL EUSKALTEGIA
Herriko Plaza, 3 - 48160 DERIO (Bizkaia) - Telf. 944 54 00 62 - Fax: 944 54 27 38
E-mail: euskaltegi.txorierri@bizkaia.org

ERREZETAK

Lehenengo platera

Arroza eta hegaluzea entsaladan

Lau lagunentzako osagaiak: arroz egosia (kilo erdi bat), hegaluzea, potokoa, edo luzaroan egositakoa (kilo laurden bat), Maionesa saltsa (kilo laurden bat), piper gorriak (bost) eta olibak.

Arroza gatz eta olio pixka batekin egosi. Hamar-hamabi minutu nahikoa da. Ur hotzaz freskatu eta ura erretiratu. Hegaluze puskak, olibak, piper-zatiak, tomatea, eta maionesa nahastu eta kito. Hotz samar zerbitzen da. Denbora asko baduzu, osagai horiekin marrazkiak egin: arrozaren zuria, tomatearen gorria, mahonesaren horia, oliben berdea... Ezetz Mirören bat sortu!

Bigarren platera

Tortila labean

Osagaiak: tomate handi bi, ehun gramo ilar, tipula bat, kilo laurden bat patata, lau arrautza, hiru koilarakada oliba-olio eta gatza.

Labea berotu (180 ºC). Bitartean, patatak, tomateak eta tipula zuritu eta zatitu. Ontzia olioz busti ondoren, osagai horiek labean sartu eta hogei bat minutuz eduki hortxe. Arrautzei gatza erantsi eta eragin. Bukatzeko, barazkiei gainetik bota eta beste hogei minutuz eduki labean. Baina, kontuz! Berehala atera labetik. Bestela, lehortu egingo da.

Postrea

Gaztainak txokolatearekin

Osagaiak: 750 gr gaztaina, litro erdi esne, 250 gr txokolate beltz, 150gr azukre eta beste hainbeste gurin.

Kanpoko eta barruko azala kendu gaztainei. Barrukoa honela kentzen zaie: ipini irakiten ura, eta bor-bor dagoenean, gaztainak sartu. Axala askatuko zaie pixka bat. Ondoren, egosi gaztainak esnearekin, eta pasapurean xehatu. Beste ontzi batean ipini berotzen txokolate zatiak, gurina, azukrea eta ur tanta batzuk. Txokolatea desegiten denean, gaztaina-orearekin nahastu, eta hozkailura. Eta mahaira ateratzean, txokolate urtua gainetik bota. Kolore pixka bat nahi baduzu, berriz, esnegaina erantsi.

Restaurante
JANA-JATETXEA
Restaurante
JANA-JATETXEA
Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak
Torrelarragoiti ind., P-7
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Telefonoa 94 452 35 26
Tel. / Fax 94 452 06 64

GAMINIZ
RESTAURANTE
AITOR ELIZEGI
Zamudioko Parke Teknologikoa
Baserria 212
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
Telf. 94 431 70 25
E-mail: garminiz@euskalnet.net
www.gaminiz.salseando21.com

2002
urte oso bat aurrezteko
EROSLE //
LARRABETZUKO EROSLE.
Iturrietxe, 2 -3. Larrabetzu

Aries
Martxoak 21 - apirilak 21
Hilabete honetan inoiz baino sentsualago sentituko zara. Beraz, aprobetxa ezazu aukera hori, gustuko duzun pertsona konkistatzeko.

Taurus
Apirilak 20 - maiatzak 20
Ilargiarekin zerikusia duen agintariak erromantikoago bihurtuko zaitu. Jarduera aldatu baino lehen, beharrezkoa da lehenago egin nahi duzuna ondo pentsatzea, presiorik gabe.

Gemini
Maiatzak 21 - ekainak 21
Lanean erakutsi duzun seriotasun horrek posible egingo du horrenbeste nahi duzun soldata igoera hori.

Cancer
Ekainak 22 - uztailak 22
Lan arloan askatasun handiagoa lortuko duzu, baina posible litzateke krisiren bat ere nozitzea. Hobe da gauzak argi esaten badituzu, txarto ulerturik egon ez dadin.

Leo
Uztailak 23 - abuztuak 22
Energia leku egokira zuzentzea eta hobeto kontrolatzea komeni zaizu. Erlazioek leku garrantzitsua izango dute zure bizitzan hilabete honetan.

Virgo
Abuztuak 23 - irailak 22
Badirudi zure bizitzako zenbait arlok nahi zenukeena baino gehiago agobiatzen zaituztela denboraldi honetan, baina ondoan dauzkazun lagunek egoera horretatik irteten lagunduko dizute.

Libra
Irailak 23 - urriak 23
Dirudienez, normaltasunez jokatzea galarazten dizuten zenbait ideia baztertzea erabaki duzu. Etapa berri baten hasiera ekarriko du horrek.

Scorpius
Urriak 24 - azaroak 22
Kontutan izan beharko duzu lan arloetan sortu ahal zaizkizun arazoak zuzenki erlazionaturik daudela zure bizitza pertsonalarekin, beraz, oso garrantzitsua da arlo bietan egonkortasuna lortzea.

Sagitarius
Azaroak 23 - abenduak 21
Zenbait egoeraren aurrean hartzen duzun jarrera hotz horrek arazoak besterik ez dizkizu ekarriko. Beldurrak atzean utzi eta arazoei aurre egin behar diezu, hori baita irtenbideak lortzeko bide bakarra

Capricornius
Abenduak 22 - urtarrilak 18
Lanean sor daitezken arazoei aurre egiteko etxekoek lagundu zaitzakete, baina argi dago zeu zarela erabakiak hartu eta burutu ditzakeen bakarra.

Aquarius
Urtarrilak 19 - otsailak 18
Erabat askea eta edozer egiteko gaitasunarekin ikusten duzu zeure burua. Aukerak hausnartu behar dituzu erabakiak hartu baino lehen.

Piscis
Otsailak 19 - martxoak 20
Ondo datorkizu lagunek eskaintzen dizuten maitasuna eta kidetasunean sostengatzea, baina ez zaizu komeni zure bikotea albo batera utzi.

GURUTZEGRAMA



GOITIK BEHERA

1.-Irakitearen onomatopeia. 2.- Nahasta. 3.- Leguminatsu. 4.-Jateko aleetan bat. Arrak ez direnez. 5.-Andre baten gizona. 6.-Tankera. Nazio Batuen Erakundea. 7.- Golde. Papar. 8.-Burdinaren Errautsa. Adierazi. 9.- Inoiz. 10.- Latz. 11.-Pertsonari dagokion galdegilea.

EZKER ESKUIN

1.-Usna. 2.-Orduan. 3.-Lan egiteko tresna. 4.-Neska batentzat bere aitaren semea. Abade. 5.-Inor gabe. 6.-Jateko zulo (atzekoz aurre). 7.-Ke-ahuts (atzekoz aurre). Ganaduen bazka. 8.-Susma. Usoaren arra. 9.- Neguan egiten den lana. 10.- Alderdian. 11.-Ordaintzeko.

UMOREA

Kakatiak etxe ondoan

Elkartzen dira bi lagun eta...
-Hombre, Joxe, zer moduz?
-Hementxe. Bazeuzkat arazo batzuk, eta...
-Eta bizitza zer moduz?
-Bizitza? Loteria egokitu zitzaidan...
-E? Loteria egokitu? Eta arazo batzuk dauzkazula?
-Begira, txalet bat egin nuen,herriaren irteeran, eta bueno, txaleta nahiko bakartia geratzen zen, eta jendea txaletaren atzeko aldera joan, eta kaka egiten du.
-Bueno, hori konpontzea badago, Joxe, hori konpontzea badago. Egin behar duzuna da atzeko alde horretan argi handi bat jarri, eta horrela ez dira joango kaka egitera.
-Ea, bada probatuko dugu... probatuko dugu.
Eta horrelaxe jarri zuen, eta handik bi hilabetera edo , berriz elkartzen dira eta...
-Joxe, zer moduz nik emandako soluzioa?
-Soluzioa? Gaizki.
-Zer ba? Ez al zenuen argia jarri?
-Bai argia jarri nuen. Ikaragarrizko argia.
-Eta?
-Eta? Orain egunkaria hartuta joaten direla kaka egitera.

ESAERA ZAHARRAK

Larrabetzu, Lezama, ta Loiu, bier asko egin ta arto gitxi koiu.

Soluzioa:

Goitik behera
1.- Bor 2.-Nahas 3.- Lekadun 4.- Baba/Emez 5.- Senar/Gagoz 6.- Era/Uno 7.-Nabab/Bular 8.-Zepa/Esan 9.-Sekulan 10.-Zakar 11.-Nor

Eskeer eskuin
1.-Sen 2.-Beraz 3.-Lanabes 4.-Neba/Apez 5.-Bakar/Bakan 6.-Oha/Uko 7.-Rade/Belar 8.-Suma/Usar 9.-Negulan 10.-Zonan 11.-Zor

TXORIERRIKO AGENDA

ZAMUDIO

-Sasimartxo. Zezeilaren 3an.

-Argazki eta bideo erakusketa. Hiru Bat dantza taldeak 30. Urteurreneko argazkiak eta bideoa erakutsi eta salduko ditu zamudiotorreko hitzaldi gelan. Zezeilaren 2an (11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00etara) eta zezeilaren 3an (11.00etatik 14.00etara).

-Santa Ageda bezperan, kopla kantatea. Zezeilaren 4an.

-Jokin Mitxelena marrazkilariaren erakusketa. Zezeilaren 18tik martiaren 3ra arte, dorretxeko erakusketa gelan, Zamudioko Liburutegiak antolatuta.

-"Munduko ipuinak". Hiruki taldeak ipuinak kontatuko deutsez umeei Zamudioko Liburutegian, zezeilaren 28an, arrastiko 6etan. Antolatzailea: Zamudioko Liburutegia.

-"Ardoaz" antzerki-monologoa (anderground trilogiaren lehen partea), Ander Lipusen eskutik, zezeilaren 19an, 20.00etan, Zamudio dorretxean. Antolatzailea: Lagatzu.

LARRABETZU

-**Kanpomartxo.** Zezeilaren 3an.

-Aratusteak. Zezeilaren 15ean, Eskolako Guraso Elkarteak eta Hori bai gazte elkarteak antolaturik. Arrastian, 16.30etan, **umeentzako jolasak eta txokolatadea;** 18.30etan, **"Aupa Kintxo!" Takolo, Pirritx eta Porrotx**en eskutik, pilotalekuan. Ostean, **kalejira.** Gauean, **sagardotegia** eta **erromeria,** Hori Bai elkartean.

-Santa Ageda bezperan, kopla kantatea. Zezeilaren 4an.

SONDIKA

-Santa Ageda bezperan, kopla kantatea. Zezeilaren 4an.

-Aratusteak:

-Zezeilaren 15ean, barikuz, 20.30etan, Inauterien hasierako **txupinazoa.**

23.00etan, Euskal erromeria: **Txapelpunk, Any my shock** eta **Hyssopus** taldeen eskutik.

-Zezeilaren 16an, zapatuz, 11.00ak inguruan **kalejirea** egongo da, jaigunetik urtenda.

Sardina, txistulariak, musika, konfetiak, e.a.

17.00etan, jubilatuentzako **kafe-omenaldia.**

21.00etan, **Sardinaren hiletea.**

24.00etatik aurrera, gau dantzea, **Ur Gabe** eta **Cinco Contra el Calvo** taldeen eskutik.

LEZAMA

-Santa Ageda bezperan, kopla kantatea. Zezeilaren 4an.

-Autoestima, erlajazioz eta masaje ikastaroa, Bego Gomezek emonda. Eguenetan, zezeilaren 7an hasita, 19.30etatik 21.30etara.

DERIO

-Santa Ageda bezperan, kopla kantatea. Zezeilaren 4an.

-Aratusteak. Zezeilaren 8an, arrastiko 18.30etan Lainomendi taldeagaz **erromeria.**

LOIU

-Santa Ageda bezperan, kopla kantatea. Zezeilaren 4an.

LIBRERÍA SONDIKA LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak, prentsa, aldiskariak, liburuak, papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Alfonso Sanchez S/L
ASEGURU ARTEKARITZA
N.º D.G.S. J-1689

Herriko Plaza, 4 - Behea
48160 DERIO (Bizkaia)
Tel. 902 400 122 - Fax 94 454 06 00
E-mail: info@seguras.es

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

GZ PRINTEK

San Martin, 153 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 08 59
Faxa: 94 452 12 60

Sormena bultzatzen dugu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia.

Hau da gure kultura.

www.bbk.es

bbk